

07 ABENDUA

Larunbata
01

Igandea
02

Astelehena
Euskararen eguna
03

Asteartea
04

Astezkena
05

Osteguna
06

Ostirala
07

Larunbata
08

Igandea
09

Astelehena
10

Asteartea
11

Astezkena
12

Osteguna
13

Ostirala
14

Larunbata
15

Igandea
16

Astelehena
17

Asteartea
18

Astezkena
19

Osteguna
20

Ostirala
21

Larunbata
22

Astelehena
31

Igandea
30

Larunbata
29

Ostirala
28

Osteguna
27

Astezkena
26

Asteartea
25

Astelehena
24

Igandea
23





EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA ERABERRITU DA

Batzordearen helburuak izango dira, besteak beste, euskararen aldeko adostasuna hedatzea eta erabilera areagotzeko ahalegina egitea.

Euskararen Aholku Batzardea (EAB) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikita dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez. Urriaren 16ko osoko bilkuran Eusko Jaurlaritzak EABren antolamendua eta funtzionamendua berritzea onartu zuen. Araudi berriaren ondorioz, batzarde honek eginkizun eta kide gehiago izango ditu.

Euskararen Aholku Batzardearen eginkizunetako bat izango da hizkuntza politikari buruzko hausnarketa zabaltzea, euskararen aldeko adostasuna lortzeko. Bestalde, euskararen erabilera areagotzeko ahaleginean segiko du eta horretarako erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatuko dizkio Eusko Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei. EABren lana da, halaber, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko jarraipen-lanak egitea.



Euskararen Aholku Batzarde berriaren lehen bileran Juan Jose Ibarretxe lehendakariak adierazitakoak

Ibarretxek duela hogeita bost urte Eusko Legebiltzarrak Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Legea onartu zuela gogorarazi zuen hitzaldian eta zera adierazi zuen: "Orduan gorpuztu zen adostasun hori indartzeak, sakontzeak eta areagotzeak ezinbesteko makulua izaten jarraitzen du euskararen biziberritzeak aurrera egingo badu. Testuinguru horretan, Lege hori ahalbidetu zutenei, garatzen ahalegindu izan diren eta ari diren guztiei, zein aitormen handiagoa, zein esker oneko ekintzarik behinena, Lege horrek aurreikusitako Euskararen Aholku Batzarde berria eratzea baino".

Batzorde-atalak

Euskararen Aholku Batzardearen baitan orain arte bi batzarde-atal berezi izan dira: Toponimia eta Terminologia. Aurrerantzean lau batzarde-atal berri hauek izango dira:

- Lege-garapenerako batzarde-atal berezia.
- XXI. menderako hizkuntza-politikaz hausnartzeko batzarde-atal berezia.
- Informazio eta Komunikazio Teknologietan euskara garatzeaz jarduteko batzarde-atal berezia.
- Euskararen presentzia hedabideetan eta euskarazko hedabideak jorratzeko batzarde-atal berezia. Hau HAKOBAK (Herri Aginteen Koordinaziorako Batzardea) egindako azterketa eta proposamenaren harira sortuko da.

Eratu berri diren batzarde-atalak urtea bukatu baino lehen abian jartzea aurreikusita dago

Batzorde Osoko kideak

EAEko administrazioiko kideak eta euskaltzainburua (14):

Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
 Lehendakariordea: Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
 Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
 Joseba Erkizia, HABEko zuzendari nagusia.
 Julian Beloki, Eusko Irratia S.A.ko zuzendari koordinatzailea.
 Joseba Alkalde, Lehendakariordetzako idazkari nagusia.
 Pedro Otxoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea.
 Jon Urrutia, HAEko zuzendari nagusia.
 Lorena Lopez de la Calle, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua.
 Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.
 Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia.
 Jokin Bildarratz, EUDELeko burua.
 Erramun Osa, HPSko Koordinaziorako zuzendari, idazkari-lanetan.

Andres Urrutia, Euskaltzainburua.

Hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan eragina duten arlo- etako kideak (37):

Dorleta Alberdi, Bizkaia Irratiko zuzendaria.
 Sagrario Aleman, euskaltzaina.
 Kike Amonarriz, soziolinguista.
 Aurelia Arkotxa, euskaltzaina.
 Inazio Arregi, Tokiko elkarteko presidentea.
 Joseba Arruti, kazetaria.
 Nerea Azurmendi, "El Diario Vasco"-ko kazetaria.
 Koldo Biguri, itzultzailea.
 Garbiñe Biurrun, magistratua.
 Allande Boutin, France3ko kazetaria.
 Ana de Castro, Euskara zinegotzia Bilboko Udalean.
 Gotzon Egja, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntza eta Sustapenerako zerbitzburua.
 Ana Eizagirre, EHIGE gurasoen elkarteko lehendakaria.
 Aingeru Epaltza, euskaltzain urgazlea.
 Lore Erriondo, UEUko zuzendaria.
 Malores Etxebarria, Hernaniko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria.
 J. Iñaki Etxezarreta, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko zuzendaria.
 Estitxu Fernandez, EITBko kazetaria.
 Iñaki Goirizelaia, EHUko katedraduna.
 Jokin Gorozika, Ingeniaritzan doktorea.
 Fernando Iraeta, Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioko zuzendaria.
 Jean Claude Iriart, Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) zuzendaria.
 Odile Kruzeta, Euskadi Irratiko zuzendaria.
 Miguel Lazpiur, Confebaskeko lehendakaria.
 Miren Elixabete Larrinaga, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultateko unibertsitate hedapenerako dekanordea.
 Anjel Lertxundi, idazlea.
 Koldo Martinez, Euskara Kultur Elkargoko (EKE) lehendakaria.
 Ludger Mees, EHUko Euskara errektoreordea.
 Mertxe Mujika, AEK-ko koordinatzaile nagusia.
 Imanol Murua Uria, "Berria"-ko kazetaria.
 Eneko Oregi, HAEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko zerbitzburua.
 Rosa Miren Pagola, Deustuko Unibertsitateko katedraduna.
 Carlos Ruiz, Gipuzkoako Kutxako Giza Baliabideen zuzendaria.
 Pello Salaburu, EHUko Euskara Institutuko zuzendaria.
 Miriam Urkia, UZEko Lexikografia Saileko burua.
 Ana Urkiza, idazlea.
 Jesus Uzkudun. CCOOko Batzarde Eragileko kidea.

Eusko Legebiltzarrak izendatutakoak (5):

Iciar Lamarain, Arrasateko zinegotzia.
 Alberto Lopez, EHUko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna.
 Garbiñe Mendizabal, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna.
 Txomin Peillen, euskaltzaina.
 Tomas Uribe-Etxebarria, BBK-ko Administrazio Batzordeko idazkaria.

□□ HAKOBAK URTEKO LEHEN BILERA EGIN DU

Bilera horretan HAKOBAko kide berriak lanean hasi ziren, batetik, eta bestetik, euskarazko hedabideen inguruko gogoeta egin zuten.

Urriaren 23an bildu zen Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) osuera berriarekin. Besteren artean euskarazko hedabideei buruzko gogoeta egin zuten, euskarazko hedabideetan duen presentzia eta erabileri buruz, hain zuzen. Bestalde, €A€ko erakunde nagusiek datozen hiru urteetarako lan-ildoak adostu zuten eta tartean daude Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko III. Plangintzaldiaren jarraipen bateratua eta IV. Plangintzaldiaren lerro nagusiak. Esparru sozioekonomikoari erreparatuz erakunde arteko LanHitz programaren betetze-maila aztertu zuten batzarrean.

HAKOBA hizkuntza politikako gaietan eskumenak dituzten Herri Aginteen arteko elkarlana areagotzeko asmoz eratu zen 1997an. Bertan, Kultura Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ogasun eta Herri Administrazio Saila, hiru Foru Aldundiak eta hiru hiriburu-udalak daude ordezkaturak, erakunde bakoitzak izendatutako ordezkari politiko baten bidez; baita EUDel (Euskadiko Udalen Elkarteak) ere.

Hizkuntza Politikarako sailburorde Patxi Baztarrikak bileran herri aginteen arteko lanaren garrantzia azpimarratu zuen: "Eusko Jaurlaritzarentzat euskararen sustapena bultzatuko badugu, funtsezkoa da herri aginteen arteko koordinazioa ahalik eta estuena izatea. Konbentziturak gaude, euskararen erabileran aurrera egiteko ezinbesteko baldintza dela herri aginte guztien konpromiso eta inplikazioa lortzea".



HAKOBAko kideak

- Miren Azkarate, Kultura sailburua.
- Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
- Joseba Alkalde, Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ordezkaria.
- Pedro Otxoa, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- José Elortegi, EUDelko ordezkari teknikoa.
- Agustín Otxoa, Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Gotzon Lobera, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Estibaliz Alkorta, Euskarazko zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Ana de Castro, zinegotzia, Bilboko Udalaren ordezkaria.
- Ainhoa Beola, zinegotzia, Donostiako Udalaren ordezkaria.
- Maite Berrocal, zinegotzia, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Erramun Osa, Kultura Saileko Koordinaziorako zuzendaria eta HAKOBAko idazkaria.



LANHITZ EGITASMOAREN BALANTZEA

Lan munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin sortu zen LanHitz egitasmoa 2006an. Eusko Jaurlaritzako Industria Saila, Lan Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, €A€ko hiru Foru Aldundiak eta udalak bat eginik aritu dira egitasmo horretan eta urtebeteko ibilbidean oinarri irmoa ezartzea lortu du LanHitzek.



Urriaren egitasmoaren lehen urteko balantzea eta aurrera begirako erronkak aurkeztu zituen Patxi Baztarrika HPSko burua. Balantzeari dagokionez, "esperantzarako bide ematen duen balantzea" dela azaldu zuen sailburuordeak. Besteak beste, esparru sozio-ekonomikoko eragile naturalekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak, enpresaz enpresa egindako sentsibilizazio eta sustapen lana, enpresen esku jarritako laguntza tekniko eta ekonomikoak eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortzeko egindako lana azpimarratu zituen.



BERTSOLARITZA SUSTATZEKO HITZARMEN BERRIA



Gure gizartearen eta hizkuntzaren ondare garrantzitsua den bertsolaritza bizirik eta indartsu mantentze aldera lankidetzak hitzarmen berria sinatu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Hitzarmen hori 2000. urtean izenpetutako lankidetzaren jarraipena da.

Eusko Jaurlaritzak 126.111 euro jarri ditu Bertsozale Elkarteak bertso eskoletan, ikerkuntzan eta komunikazioan lan egin dezan.



EUSKARAZKO KAZETARITZA SUSTATZEKO HITZARMENA

HPSk urrats berria emango du hedabideetan euskararen presentzia areagotu eta euskarazko hedabideak bultzatu eta sendotzeko jardunaren bide-tik. Hori dela-eta, urtea amaitu aurretik hitzarmena sinatuko du Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Hitzarmen horren bidez, EHUK antolatutako "Euskarazko komunikazioa eta hizkuntza gutxituak" masterrari, interes publikokoa den aldetik, bere abegi ona erakutsi nahi dio HPSk. Masterraren bideragarritasuna ziurtatze aldera, EHUK 20.000 euro jasoko ditu.



Dagoeneko martxan dagoen master horren xede nagusia honako hau da: hedabideetan euskaraz diharduten profesionalen behar duten besteko ezagutza eta trebakuntza osagarria eskaintzea, beti ere aurrean dituzten erronkei aurre egiteko moduan izan daitezela.

euskararen Berripapera

"PIXKA BAT ES MUCHO", BELDURRAK ALDE BATERA UZTEKO KANPAINA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatutako "Pixka bat es mucho" kanpainaren bidez, ezagutzatik erabilerarako jauzia egite aldera, euskara erabiltzeko gai direnen inplikazioa areagotu eta erabileraren aldeko mezua igorri nahi da.

Iaz Ukan birusa oinarritzat hartuta egin zen kanpainaren jarraipena dugu hau. Ukan birusa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskariz sortu zen 2005ean, hizkuntzen eta hiztunen arteko elkarbizitza bultzatzeko ikur gisa. Ukan birusaren helburua euskararen erabilera kutsatzea da. Izan ere, euskararen ezagutzan aurrerakuntza nabarmenak eman dira azken urteotan eta orain, erabileraren erronkari ekin nahi zaio.

Horregatik, joan den urrian Donostiako Tabacalera aurkeztutako "Pixka bat es mucho" kanpainaren bitartez, euskara jakin arren erabiltzen "ausartzen" ez diren pertsonak euskaraz ere hitz egitera bultzatu nahi dira. Euskaldunei, batetik, jakinarazi zaie zaila dela eta ahalegin handia egin behar dela, beldurra alde batera utzita, euskaraz hitz egiteko; eta, bestetik, prozesu horretan lagun dezaten eskatu zaie.



Mezu hori zabaltzeko lau asteko kanpaina egin da komunikabideetan. Horrez gain, Euskal Herriko II. Pintxo Lehiaketako irabazleek "Ukan pintxo" sortu dute. Pintxo berezi hori euskararen sustapenaren alde agertzen diren taberna eta jatetxe guztietan dastatu ahal izango da. Kanpainari Euskararen Nazioarteko Egunean eman zitzaien amaiera.

Datozen hilabeteetan kirol eta kultur arloko ekitaldirik adierazgarrienetan ere izango du presentzia Ukan birusak.

TELEFONIA MUGIKORREAN EUSKARA SUSTATZEKO HITZARMENAK

Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, telefonia mugikorrean euskara sustatzeko lankidetzarako bi hitzarmen marko sinatu ditu telefonia operadore eta fabrikatzaile nagusiekin. Hitzarmen hauen bidez, Eroski, Euskaltel, Telefónica, Vodafone eta Yoigo operadoreek, eta Alcatel, Nokia, Samsung eta Sony Ericsson fabrikatzaileek euskara progresiboki eta pixkanaka telefonia mugikorraren esparruan sustatzeko konpromisoa hartu dute. Besteak beste, Euskadin merkaturatzen diren terminaletan euskara ezarriko dute eta pantaila interaktiboen bidezko teknologia-produktuetan euskara jarriko dute hizkuntza-aukeren artean.



Patxi Baztarrika HPSko buruak hitzarmenak sinatzeko Bilbon egindako ekitaldian adierazi zuenez, "euskararen erabileraren erronka irabazteko asko falta da oraindik" eta horretarako, besteak beste, "euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko aukerak sortu behar dira". Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko estrategian kokatzen dira, hain zuzen ere, telefonia enpresa nagusiekin sinatutako hitzarmenak.

Bi hitzarmen horiek sinatzearekin, Eusko Legebiltzarrak martxoaren 30eko Osoko Bilkuran egindako eskaera bete du Eusko Jaurlaritzak.

EUSKARA HIZKUNTZA AZOKETAN

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABErekin elkarlanean, Europan egin diren lau hizkuntza azokatan parte hartu du aurtan. Ekimen hauen bidez, euskararen berriak eta jakingaiak zabaltzeaz gain, munduko beste hizkuntzen arteko kokagunea ematen zaio euskarari, baita kanpoko hizkuntzen esperientzien berri ikasteko aukeraz baliatu ere.

Munduan hizkuntza gaietarako azoka nagusia den Expolangues azokan parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 24tik 27ra bitartean. Jardunbide horri eutsiz, 2008ko otsailaren 6tik 9ra egingo den hurrengo edizioan ere esku hartuko du.

Hizkuntza, kultura eta komunikazioa gaitzat zituen Londresko The Language Show azoka azaroaren 2tik 4ra egin zen eta Eusko Jaurlaritzak bigarren aldiz izan zen bertan. Aurtan, gainera, Kataluniako Ramón Lull Ikastegia izan zuen lagun erakustokian, euskara eta katalana batera azaldu baitziren.

Azaroaren 9an eta 10ean berriz, Pragako Expolingua azokan hartu zuen parte Eusko Jaurlaritzak.



Berlingo Expolingua azoka (2007-11-16/18).

Joan den azaroaren 16tik 18ra Berlinen egin zen Expolingua azokan ere Kataluniako Ramón Lull Ikastegiarekin eta Galiziako Xuntarekin batera izan zen Eusko Jaurlaritzak. Euskarak, katalanak eta galegoak tokia eta jarduerak lehen aldiz partekatu zituzten. Esku-hartze bateratu hori hiru gobernuek hasitako lankidetzak-hitzarmenaren ondorio dugu, informazioa eta esperientziak trukatzeko aldera, eta elkarlanean aritzeko asmoz hiru hizkuntzak gehiago aitor eta babes dezaten espainiar Estatuan eta Europa eleanitzean.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburordeak, Paquita Sanvicén Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako Planifikazio eta Sustatze zuzendariak eta Marisol Lopez Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikako idazkari orokorrak parte hartu zuten hizkuntzen nazioarteko azokaren itxiera-ekitaldi bateratuan. Bertan, agerian utzi zuten hizkuntza propioa duten komunitateek ekintzak burutzearen garrantzia, hizkuntzen mosaikoa den Europan, eta bere erakundearen baitan hizkuntza horiek onartzeko eta babesteko. Horren kontura, Patxi Baztarrikak, Paquita Sanvicének eta Marisol Lópezek hizkuntza guztien arteko berdintasun sozialaren alde egin zuten, hizkuntz aniztasunaren aberastasuna aprobetxatu egin behar baita, gizartearen kohesioa-entzako giltzarria denez gero.

OHARRA

Laster paperezko bertsioa bazterrean utzi gabe, **Euskararen Berripapera** buletin elektronikoko gisa agertu eta zabalduko da. Gaur arte paperean jaso arren, aurrerantzean bertsio elektronikoa baino jaso nahi ez baduzu, bidaliezaguzu, mesedez, mezu bat honako helbide honetara: **berripapera@ej-gv.es**. Bertan, jakinarazi zure izen-abizenak eta buletina jasotzeko helbide elektronikoa.

Mila esker.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zerbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística